



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urriaren 13a

9. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lehentasuntzat har dezan Kioton gas isurketei buruz hartutako konpromisoak betetzea, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da aurrekontuan diru kopuru bat ezar dezan infekzio neumokozikoaren kontrako txertoak emateko, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez proposatzen da ikasbonoa ezartzea joan-etorriak egin behar dituzten ikasle guztientzat, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez eskatzen da 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten ama langile guztientzako zabal dadin hileroko laguntza, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, laguntzak handiagoak izan daitezen eskatzen da baldin eta seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketa edo eszedentzia aitak eskatzen badu, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Lizarran agertu diren sinagoga baten aztarnei buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (8. or.).
- Galdera, herriz herri odola ateratzen ibiltzen den autobusari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (8. or.).
- Galdera, osasun arloko E mailako langileei soldata ehuneko 1 igotzeak eragiten duen bidegabekeriari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (9. or.).
- Galdera, Itoizko urtegiak ukitutako herriak eraitsi aurretik horien balioari buruzko azterlanik egin al den jakiteko, Aralar parlamentu-taldeak egina (10. or.).
- Galdera, Jorge Oteiza museoan komunikabide bateko bezeroentzako bakarrik prestatutako bisitei buruzkoa, foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak egina (10. or.).

- Galdera, toki itunetarako departamentu arteko batzordearen lanei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (11. or.).
- Galdera, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietako herritarren segurtasunari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (12. or.).
- Galdera, toki ogasunek Nafarroako tributueta parte hartzeko funtsaren banatzeko formulari buruzko lege berri bat igortzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (12. or.).
- Galdera, toki entitateei larrialdi egoeren arabera ematen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Azagrako Udalarari 2000 urteko uholdeengatik eman dakizkiokeen konpentsazioei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (13. or.).
- Galdera, langabezi prestazioak jasotzen ari direnen gaineko zehatze- eskumena galtzeko aukerari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egin (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Bereziaren osaera (15. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuntzat har dezan Kioton gas isurketei buruz hartutako konpromisoak betetzea**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuntzat har dezan Kioton gas isurketei buruz hartutako konpromisoak betetzea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalgo dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

1997an Kiotoko Protokoloa izenpetu zen, Klima Aldaketari buruzko Hitzarmena garatzeko. Horixe da nahitaez bete beharreko helburu zehatzak finkatzen dituen nazioarteko lehen hitzarmena, klima-aldaketa eragiten duten gas-isuriak murrizteko.

Helburua da lurraren berotze-prozesua eta ozono-geruzaren suntsipena geraraztea, zeina "negutegi efektua" eragiten duten sei gasen (CO<sub>2</sub>, CH<sub>4</sub>, N<sub>2</sub>O, HFC, PFC eta SF<sub>6</sub>) ondorioa baita. Gas horiek sortzen dira energia fosil kutsagarriak

erabiltzean, hala nola petrolioia, ikatza, gasa, egurra eta abar. Azken batean, lortu nahi dena da berotze-prozesu global horrek kliman, osasunean edo ekonomian eragiten dituen ondorio negatiboak saihestea.

Horrela, Kiotoko protokoloan, Europako Batasunak konpromisoa hartu zuen 2008. eta 2012. urteen artean isurien % 8 murrizteko, 1990. urteko mailarekin alderatuz. Europako Batasunaren ahalgin horren barruan, Espainiako Estatuak konpromisoa hartu du 1990eko isuriak % 15 baino hein handiagoan ez gainditzeko.

Alabaina, murrizketa-konpromiso handiagoak hartu dituzten Europako herriek, Alemaniak edo Britainia Handiak kasu, haiek isurtzen dituzten negutegi-efektuko gasak murrizteko planak egin eta aplikatu badituzte ere, bai Espainiako Estatuak bai Nafarroak dagoeneko alde handiz gainditzen dituzte 1990ean eginiko isuriak.

Nafarroan botatzen ditugun negutegi-efektuko gasen isuriaren zenbatekoa dela-eta, nabarmenki hautsi dugu % 15eko gorakadari buruzko konpromisoa, 1997an harturikoa. Izan ere, gaur arteko bitarte horretan isuriak % 42 gehitu dira, foru Gobernuaren eledunak berriki zioenez.

Premiazkoa da berehalako neurriak hartzea, energia aurreztu eta haren efizientzia erdiesteko, eta zentral termiko eta nuklearren ordez energia berriztagarriak erabiltzeko. Eta argi dago Nafarroan energiaren aurrezpen eta efizientziarako eginko ekintzak oso eskasak izan direla, nahiz eta Nafarroako Energia Planean, IUN/NEBek proposatuta, energia aurreztu beharra azpimarratzen zuen kapitulu bat sartu zen.

Espainiako Estatuan, isuriak 1990etik izandako gehikuntza % 38koa izan da, eta Estatuak bere politikari eusten dio; alegia, zentral termiko berriak

eraikitzeari. Horrekin, negutegi-efektua eragiten duten gas gero eta gehiago isuriko dugu. Aipatzen da, adibidez, Iberdrolaren proiektua, Los Arcos de la Frontera herrian (Cádiz) Espainiako zentral termikorik handiena eraikitzea –1.600 megawatteko potentzia izan behar du–.

Estatuaren energia-planifikazioan sarturiko zentral berriak eraikitzen badira, 35.000 MWeko potentzia gehigarria instalatuko da, eta horrek eraginen du 130 milioi tona CO<sub>2</sub> gehiago isurtzea, eta, beraz, 1990eko isuriek alderatuta, gorakada % 60koa izatera iristea. Hots, Kioton izenpetu genituen konpromisoak goitik behera apurtzea.

Hori dela-eta, IUN/NEBren parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du negutegi-efektuko gasak isurtzeari buruz Kioton hartutako konpromisoak foru erkidegoan betetzea lehentasun gisa ezar dezan. Horretarako urratsak izanen dira:

a) 2004ko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik klima-aldaketaren arloan ekiteko foru plan bat

prestatzea, Kiotoko konpromisoa (negutegi-efektuko gasen isuriaren gorakada % 15 baino txikiago izatearena, alegia) betetzen dela bermatzeko.

b) Arlo honetan helburu neurgarriak, ekintzak eta aurrekontuen nahiz fiskalitatearen arloko aurreikuspenak ezartzea, energia aurreztu eta efizientziaz erabiltzeko neurriak presaz hartzera bideratuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du Estatuan planifikazio bat egin dezan, autonomia erkidegoekin koordinaturik, zentral termikoen eta nuklearren ordeztu energia berriztagarriak ezartzeko.

3. Erabaki hau ondokoei igorriko zaie:

– Gobernu zentralaren lehendakaritzari.

– Diputatuen Kongresuko lehendakaritzari.

– Estatuaren autonomia-erkidegoetako parlamentuaren lehendakaritzari.

Iruñean, 2003ko irailaren 29an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da aurrekontuan diru kopuru bat ezar dezan infekzio neumokozikoaren kontrako txertoak emateko**

*FORU PARLAMENTARI HELENA SANTESTEBAN GUEL BENZU ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da aurrekontuan diru kopuru bat ezar dezan infekzio neumokozikoaren kontrako txertoak emateko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Pneumokoko-infekzioa da bakterio- eta pneumonia-infekzioaren kausarik arruntena, eta bakterio-meningitisaren bigarren kausa, Nafarroako Foru Komunitateko haurren artean.

Urteko garai honetan agertzen da maizenik infekzio hori eta, aldi berean, sasoi honetan familien ekonomiak nabarmen ahulduak gertatzen dira, ikasturtearen hasierak ekartzen dituen gastu ugarien ondorioz.

Ezin dugu familien ekonomiaren baitan utzi haur bati txertoa jarri edo ez jartzea; horregatik, txerto horren kostua Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak hartu behar du bere gain.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du haur guztiei pneumokoko-infekzioaren aurkako txertoa

jartzeko behar den aurrekontua sor dezan, Espainiako Pediatria Elkartearen jarraibide ofizialen arabera, eta 2003ko txerto-egutegiari jarraituz. Txerto-jartze horrek barnean hartu behar ditu 2 urtetik beherako haur guztiak, haurtzaindegietara joan ohi diren 2 eta 3 urte bitartekoak eta, gainera, bestelako arrisku-sintomak dauzkatenak.”

Iruñean, 2003ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Helena Santesteban Guelbenzu

## **Mozioa. Horren bidez proposatzen da ikasbonoa ezartzea joan-etorriak egin behar dituzten ikasle guztientzat**

### *FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez proposatzen da ikasbonoa ezartzea joan-etorriak egin behar dituzten ikasle guztientzat”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Herrilan eta Azpiegitura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ikasbonoa/eskola-bonoa ezartzea, ikasketak direla-eta lekuz aldatzera behartuta suertatzen diren ikasle guztiei zuzendua, Nafarroa osoaren lurralderako, eta lekualdatzearen kostua adinako zenbatekoa izanen duena.

Zioen azalpena:

Aralar parlamentu-taldearen aburuz, gogoan izanik ikasten ari diren seme-alabak dituzten Nafarroako familientzat garraio publikoaren kostuak (bai hiri barneko bai hiri arteko garraioarenak) nolako garrantzia duen haiek ikastetxeetara joan ahal izateko, beharrezkoa da ikasbono dei lekioken eskola-bonoa ezartzea.

Proposameneko ikasbonoa eskubide pertsonal eta subjektiboa da, ikaslearen pertsonak izan behar baitu laguntzaren xede, eta ikasketa-maila guztietan gainera, ikasketa horiek direnak direla ere. Foru administrazioak arautzen ditu irakaskuntza emateaz arduratzen diren egiturak, eta, horregatik, haretzek izan behar du egitura horien onargarritasunaren erantzule, bai lekualdatze-gasturik ez daukaten ikasleei dagokienez, bai halakoak badauzkatenei dagokienez ere, betiere berdintasunez tratatuak izan daitezten.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten du Aralarrek, jarraian zehazten diren ezaugarrietan oinarritua:

1. Ezarpen-eremua:

- Iruñerriko Mankomunitatea.
- Nafarroako gainerako lurraldeak.

2. Onuradunak: Honakoetan ikasten dihardutenak:

- Unibertsitatea.
- Batxilergoa.
- Lanbide Heziketa.

- Bigarren hezkuntza.

- Lehen Hezkuntza.

3. Ezarpena:

- Iruñerriko Mankomunitatean, 2003ko azaroaren 1ean.

- Nafarroako gainerakoan, 2004ko urtarrilaren 1ean.

4. Ezaugarriak:

- % 50eko murrizketa prezio normalaren kostuaren gain.

- Garraiobide-aldaketa doakoa, 45 minututan.

- Eskola-egunetan.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

## **Mozioa. Horren bidez eskatzen da 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten ama langile guztientzako zabal dadin hileroko laguntza**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez eskatzen da 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten ama langile guztientzako zabal dadin hileroko laguntza".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta onesteko. Mozioan eskatzen da 3 urtez beherako

seme-alabak dituzten ama langile guztientzako zabal dadin hileroko 100 euroko laguntza.

Laguntza hori 2003ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, baina gaur egun aplikatzen zaie soilik lan ordaindua duten amei; hau da, etxetik kanpo lan egiten dutenei bakarrik.

Gainerako emakumeek ere lan egiten dutenez gero, nahiz eta ordainsaririk jasotzen ez duten, Konstituzioko 14. artikulua eta haren garapena, Konstituzioko 9.2 artikulua, aplikatu behar direla iruditzen zaigu.

Lan egiten duten emakume guztiek, bai etxe barruan bai etxetik kanpo, daukate 100 euroko laguntzarako eskubidea, Espainiako Konstituzioko 14. eta 9. artikuluen babesean. (Konstituzioko 14. artikulua: espainiar guztiak berdinak dira Legearen aurrean.) (Konstituzioko 9. artikulua: botere publikoek berdintasun-printzipioa egiazkoa eta eraginkorra izateko oztupoak kenduko dituzte.)

Arrazoi horiek direla-eta, parlamentu-talde sozialistak honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez eskatzen baita 3 urtetik beherako seme-alabak dituzten ama langile guztientzako zabal dadin hileroko 100 euroko laguntza.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Mozioa. Horren bidez, laguntzak handiagoak izan daitezen eskatzen da baldin eta seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketa edo eszedentzia aitak eskatzen badu**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, laguntzak handiagoak izan daitezen eskatzen da baldin eta seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketa edo eszedentzia aitak eskatzen badu".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta

onesteko. Mozioan eskatzen da lanaldia murriztearen laguntza eta seme-alabak zaintzeko eszedentziaren ondoriozko laguntza handitu daitezela, laguntza horiek eskatzen dituen aita denean.

Seme-alabak zaintzeko eszedentziaren ondoriozko laguntzak (2000ko abuztuaren 2koa, 2001eko otsailaren 14an aldatua) ekintza positibo bat behar du, haren zenbatekoa handiagoa izan dadin eskatzen duena aita denean. Lanaldia murrizteko ere, badirudi ekintza hori bera beharrezkoa dela (2002ko uztailaren 23koa, 2002ko urriaren 18an aldatua).

Horren guztiaren helburua da lan eta familia bizitza bateragarri egite hori egiazki gauzatzea, eta ez hitz polit hutsetan gelditzea; horretarako, derrigorrezkoa da aitak parte hartzea ugalketazereginean.

Horrenbestez, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du, lanaldi-murrizketaren eta seme-alabak zaintzeko eszedentziaren laguntza gehitu dadin, laguntza horiek aitak eskatzen dituenen.

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Lizarran agertu diren sinagoga baten aztarnei buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Lizarran agertu diren sinagoga baten aztarnei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuo Kultura Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Lizarrako Santa Maria Jus del Castillo eliza zaharberritzeko lanetan ari zirela antzinako sinagoga baten ustezko aztarnak aurkitu direla-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Aurkikuntza horri buruzko azterlan sakonagorik egiteko asmorik ba al dagoen. Baiezkoan, azterlan hori egiteko ardura zein entitateri emanen zaion.

– Zer erabilera eman nahi zaie aurkituriko aztarnei?

Iruñean, 2003ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## **Galdera, herriz herri odola ateratzen ibiltzen den autobusari buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak herriz herri odola ateratzen ibiltzen den autobusari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana

Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuo Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Odol Bankuak autobus bat dauka, Nafarroa guztian zehar mugitu eta bertako herrietan odol-ateratzeak egin ahal izateko. Autobusak bi txandatan funtzionatzen du, goizez eta arratsaldez, eta bi gidari dauzka; alabaina, gaur egun zerbitzua gidari bakar batek egiten du.

Zerbitzu honek Nafarroan egiten diren odol-emateen % 30 jasotzen du. Azken hiru asteotan gutxi gorabehera, eta ostiralera arte, hilak 26, pertsona batek txandak bikoiztu ditu, zuzendaritza



nagusiak hala eskatuta, odol-emateak ez etetearen.

Egun horretatik aurrera, automotekak egin beharreko irteerak bertan behera utzi dira, pertsona batek berak ezinezkoa baitauka txanda bikoitza egitea.

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zer dela-eta sortu da egoera hau?

– Horrelako egoera baterako, ez al du departamentuak berehalako konponbiderik aurreikusi?

– Noizko dauka, behar den departamentuak, arazo horri konponbidea emateko asmoa?

Iruñean, 2003ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, osasun arloko E mailako langileei soldata ehuneko 1 igotzeak eragiten duen bidegabekeriari buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak osasun arloko E mailako langileei soldata ehuneko 1 igotzeak eragiten duen bidegabekeriari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Joan den irailaren 23an, Osasunbideko langile-talde batek testu bat eman zion parlamentari honi, non xehetasunez adierazten baitira aurtengo martxoaren 26an harturiko erabaki batek haien iritziz izandako ondorioak.

Aipaturiko testua amaitzen da honako eskaera honekin: “Azter bedi eragindako egoera bidegabea legezko ekimen berri baten bidez zuzentzeko aukera; bidegabekeria hori eragin da bai osasun-kidegoen barruan E mailak izandako % 1eko igoeraren bitartez, bai osasunaz bestelako kidegoak 26/2003 Legeak ezarritako igoeratik kanpo uztearekin ere”.

Hori horrela, honako hau jakin nahi dut:

Langile-kolektibo horrek eginiko eskaera hori ikusita, zein da Osasun Departamentuaren jarraia?

Iruñean, 2003ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Itoizko urtegiak ukitutako herriak eraitsi aurretik horien balioari buruzko azterlanik egin al den jakiteko**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Itoizko urtegiak ukitutako herriak eraitsi aurretik horien balioari buruzko azterlanik egin al den jakiteko egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduak ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari honako galdera hau aurkeztu dio, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Itoizko urtegiak ukitutako etxeak, elizak eta herriak eraitsi aurretik horien balio kultural, artistiko, arkitektoniko edo etnologikoari buruzko azterlanik Gobernuak egin al duen. Baiezkoan, azterlan hori parlamentu-talde honi helaraz bekio.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot aurreko galdera aurkeztuztat jo dezala eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2003ko irailaren 29an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Jorge Oteiza museoan komunikabide bateko bezeroentzako bakarrik prestatutako bisitei buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak Jorge Oteiza museoan komunikabide bateko bezeroentzako bakarrik prestatutako bisitei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuteko:

“Diario de Navarra” egunkaria iragarki bat argitaratzen ari da, soilik egunkari horren harpidedun direnentzat Jorge Oteiza Museoan barrena bisita gidatuak eskaintzen dituena. Iragarki horrek, hitzez hitz, hauxe dio: “Ekainaren 6an, 19:00etan, museoak bere atea berriro ere irekiko ditu, gure harpidedunentzat soil-soilik”.

Kontuan izanik Jorge Oteiza Museoa Fundazioak finantzaketa publikoa jasotzen duela, harrigarri gertatzen da museo horretarako bisitak ez egotea jendearentzat oro har irekiak, baizik eta merkataritza-entitate jakin baten bezero direneta- ra mugaturik egotea.

Hori guztia gogoan izanik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaion eskatzen du:

1. Zer-nolako akordio edo akordioak izenpetu ditu Jorge Oteiza Museoa Fundazioak entitate pribatuekin, merkataritzakoak, zibilak nahiz elkartegintza esparrukoak, haien bezero edo bazkideei

bisita eskusiboak eskaintzeko? Zer eskatu da horren truke?

2. Akordiorik izanez gero, zein irizpide erabiltzen dira horiek izenpetzeko eta, zehazki, akordio horiek zein entitateekin izenpetuko diren hautatzeko?

3. Jorge Oteiza Museoa urte osoan egonen da jendeari irekita, ala soilik urtearen zati batean? Kolektibo jakin batzuetara mugaturiko harrera epe edo ordutegirik izanen al da?

Iruñean, 2003ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Izu Beloso

## **Galdera, toki itunetarako departamentu arteko batzordearen lanei buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak toki itunetarako departamentu arteko batzordearen lanei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hauek aurkeztu ditu, toki itunetarako departamentu arteko batzor-

dearen lanei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaien:

2000-09-04ko erabaki baten bidez, Nafarroako toki itunetarako departamentu arteko batzordea eratu zen, zeinaren lehendakaria baita toki administrazio kontseilaria.

Orain arte eginiko lanak eta haien jarraitasuna ezagutzeko asmoz, honako galdera hauek egin ditugu:

- Toki entitateei eskualda dakizkiekeen eskumenak zehaztu al dira?

- Eskumen horiek toki entitateek beren gain hartu ahal izateko izan behar duten tamaina zehaztu al da?

- Bilkuraldi honetan zehar eskualdaketarik egiteko asmorik ba al dago?

- Eskualdaketa horien kostua kalkulatu al da?

Iruñean, 2003ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietako herritarren segurtasunari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietako herritarren segurtasunari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera hauek aurkeztu ditu, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietako herritarren segurtasunari buruzkoak, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaien:

Herritarrek, indar politikoez eta Gobernuak behin eta berriro adierazi izan dute herritarren segurtasunaren arloko kezka, ikusirik arlo honetan dauden hutsuneak eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko toki-entitateak oso ugariak direla.

- Gobernuaren ustez, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietako biztanleek zerbitzu ona al daukate herritarren segurtasunaren arloan?

- Bilkuraldi honetan zehar Gobernuak asmorik al dauka Parlamentu honetan ekimenen bat izapidatzeko?

Iruñean, 2003ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren banatzeko formulari buruzko lege berri bat igortzeari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren banatzeko formulari buruzko lege berri bat igortzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, toki-ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa banatzeko formulari buruzko lege berri bat Parlamentura bilkuraldi honetan igortzeari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Gobernuak hartua dauka konpromisoa, toki-ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren banaketa-formulari buruzko lege berri bat onesteko prozesuari adostasun-giroan ekiteko.

- Gobernuak asmorik ba al dauka Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren banaketa-formulari buruzko lege berri baterako inolako proposamenik Parlamentuari igortzeko bilkuraldi honetan?

Iruñean, 2003ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, toki entitateei larrialdi egoeren arabera ematen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak toki entitateei larrialdi egoeren arabera ematen zaizkien dirulaguntzei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biarge jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hauek aurkeztu ditu, larrialdien arabera toki-entitateentzako dirulaguntzei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaien:

Hiru urteko planeko irizpideei jarraituz eginiko lanez landara, badaude larrialdien arabera dirulaguntzak.

- Zenbat eskaera sartu dira departamentuan 2003. urtean zehar (zehatz bitez udalerrriak)? Zein izan dira horien zergatiak?

- Zenbat dira, eta zein udalerritakoak, baiezeko erantzuna izan dutenak?

Iruñean, 2003ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Azagrako Udalarari 2000 urteko uholdeengatik eman dakizkiokeen konpentsazioei buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Azagrako Udalarari 2000 urteko uholdeengatik eman dakizkiokeen konpentsazioei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera hauek aurkeztu ditu, 2000. urtean izandako uholdeen ondorioei aurre egiteko Azagrako Udalarentzako balizko kalte-ordainei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaien:

2000. urtean, Azagrak bertako azpiegituretan kalte larriak eragin zituzten uholdeak izan zituen.

Bai Gobernuak lehendakari Sanz jaunak bai kontseilari Gurrea jaunak konpromiso publikoak eta pribatuak hartu zituzten, eragindako gastuei aurre egiteko kalte-ordainak emateko Udalarari.

- Ba al dauka Gobernuak konpromiso horri aurre egiteko asmorik?

- Noizko dauka asmoa kalte-ordainak emateko?

Iruñean, 2003ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, langabezi prestazioak jasotzen ari direnen gaineko zehatze- eskumena galtzeko aukerari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko urriaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak langabezi prestazioak jasotzen ari direnen gaineko zehatze- eskumena galtzeko aukerari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Jakin ahal izan dugunez, Diputatuen Kongresuko Gizarte Politika eta Enplegu Batzordeak Enpleguari buruzko lege proiekturako zuzenketa bat onetsi du gaur, Alderdi Popularrak eginiko proposamenari jarraituz. Zuzenketa hori dela medio, arau-hausteak egiten dituzten langabezia-prestazioen hartzaileei zehapenak ezartzeko eskumena berreskuratuko du Gobernu zentralak.

Exekuzio-eskumen bat da hori, Nafarroako Foru Komunitateari maiatzaren 14ko 811/1999 Errege Dekretuaren bitartez transferitu zitzaiona.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1) Zer iritzi dauka Nafarroako Gobernuak eskumen hori galtzeko arriskuari buruz?

2) Alderdi Popularraren eledun José Eugenio Azpirozek, adierazpen batzuetan, neurri hori justifikatu zuen, esanez aipaturiko arloko arau-hausteen ondoriozko zehapen-espeditenteak zuzentzeko ahalmena autonomia erkidego batzuei lagata arau-hauste horien kontrola murriztu egin dela. Egia al da arau-hausteen kontrola murriztu egin dela Nafarroan?

3) Aipaturiko baieztapenak frogatzen edo gezurtatzen dituen inolako estatistika-daturik eman al dezake Nafarroako Gobernuak?

4) Nafarroako Gobernuak ba al dauka nolabaitteko neurriren bat hartzeko asmorik, eskumen horrek Nafarroako Foru Komunitatearena izateari uztea saihesteko?

5) Lege hori onestearen kasuan konstituzio- kontraktotasun-errekurtsorik aurkeztea aztertuko al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2003ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Bereziaren osaera**

LEHENDAKARIA

Amelia Salanueva Murguialday and. (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Carlos García Adanero jn. (UPN)

Alfredo Jaime Irujo jn. (UPN)

José Luis Castejón Garrués jn. (SPN)

Juan José Lizarbe Baztán jn. (SPN)

Ana Figueras Castellano and. (IUN-NEB)

Txentxo Jiménez Hervas jn. (Aralar)

Juan Cruz Alli Aranguren jn. (CDN)

Begoña Errazti Esnal and. (EA)

José Luis Etxegarai Andueza jn. (Askotarikoa)

---



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA  
ORRIA**

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b>
Urte bat ..... 40,27 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,02 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,20 »	